



OIARTZUNGO
UDALA

AUZO BILERAK 2023

AUZO: ALTZIBAR

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2023/10/09	19:00	20:30

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Joana Mendiburu, Oihana Irastorza, Agustin Lekuona eta Ibintza Iragorri		
Herritarrak: 25	Euskaraz: 25		Elebitan:0
	Emakumezkoak:15		Gizonezkoak:10
	<30 urte: 0	31-50 urte: 14	51-65 urte:6 >66 urte:5

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Batzarrean zehar landuko den gai zerrenda azaldu da.
Legealdirako proiektuak	<p>Lan ildo nagusi edo estrategikoen berri eman dugu</p> <p>ABIAPUNTUA</p> <ol style="list-style-type: none">1) Aurreko legealdietatik jaso duguna oso baikorra izan da, eta horrek lagundu egiten du: herriak udalean duen konfiantza, zorrik gabeko udala izatea, talde polita sortu dugu, teknikariek zinegotzietatik izan duten harrera oso ona izan da. Proiektuen aldetik ez gara zerotik hasi, aurreko taldeak egindako lanaren jarraipena egingo dugu.2) Herritarrekin lan egiteko formula berriak bilatu behar ditugu, abiapuntua auzolana izango litzateke, UDALGINTZA HERRIGILEA, arriskuak aukera bihurtzeko udal politika. Herritarrak dira protagonista, udalak baliabideak jartzen ditu, baina ondoren sektore ekonomiko bat egon behar da bultzada emango diona.3) Hauteskundeak irabazi ditugu, eta programan hitz emandakoa bete egin behar dugu.4) Krisi egoera orokor batean gaude, baina horren aurrean Oiartzundik bertatik egoerari buelta ematen hasi beharko genuke



OIARTZUNGO
UDALA

LEGEALDI PLANA

3 lan-lerrotan banatuta dago: herritarrak (ongizatea, kultura, euskara, ongizatea...), lurraldea (lurraren zein herriaren antolaketa) eta antolaketa (udaletxearen funtzionamendua eta zein giza-baliabide dituen)

LAN ILDO ESTRATEGIKOAK

- 1) ELIKADURA BURUJABETZA: gaur egun, udalak laguntzen dituen hainbat egitasmo daude martxan. Udalak hasierako bultzada eman die elkarte hauei, eta ondoren beren bidea egin dute. Herriko lurrak erosten jarraituko dugu 1.sektorea bultzatzeko, herriko sukaldeak hornitu nahi ditugu herrian bertan ekoiztiko jakiekin (herriko ikastetxeak, zahar etxea...). Herrian badaude ekimen ugari beren kabuz proiektuak bultzatzen ari direnak, baina ez dute foro komunik elkarlanean aritzeko.
- 2) ENERGIA BURUJABETZA: sortu berri da Argitturri kooperatiba (hiruki horren parte den zutabe sozioekonomikoa). Udal mailan zein herri mailan neurriak hartu behar dira klima aldaketa dela-eta.
- 3) MUGIKORTASUN JASANGARRIA: herrian ohiturak aldatzen hasi behar dugu. Bizikletak lehenesteko plana egiteko asmoa dago (aparkalekuak...). Beste asmo bat da Arraguan intermodala eskatzea, oiartzuarrok aukera izan dezagun Euskal Herriko hainbat lekutara joateko: Gasteiz, Bilbo, Iruñea...
- 4) OSASUNA ETA ZAINZA: Zaintzadi programaren inguruan hitz egin dugu, bakardade ez hautatuan dauden herritarrak laguntzeko egitasmoa da. 22 herritarrek eman dute dagoeneko izena ekimen honetan. Zaintzadiren ideia da udalak laguntzea, baina herritarren sare baten laguntzarekin batera. Zaintza askotan osasun arazoak konpontzarekin lotuta egoten da, baina udalaren ardura da bitzita aktiboa sustatzea, bakardadeari laguntzeko modua ere baita horrelako ekimenak antolatzea.
- 5) KULTURA EUSKARAZ: bizi ditugun garaiek euskalgintza hauspotzeko beharra erakusten dute (etorkinak, euskararen aurkako erasoak...).



OIARTZUNGO
UDALA

	<p>Landetxe dagoeneko eraiki dugu, eta orain kultura plana egiteko momentua da. Gazte sortzaile ugari dugu herrian. Irakurzaletasuna sustatzeko aukera berriak aztertuko ditugu. Ondarea balioan jarriko dugu, eta udalaren lokalak eskura jarriko ditugu herriko kultur-sorkuntza bultzatzeko.</p> <p>LEGEGINTZALDIAN MARTXAN DIREN ETXEBIZITZA SUSTAPENAK: Altzibar zein Iturriozko promozioen berri eman da. Elizaldeko Urkabe Baitako eremuaz hitz egin da. Babes ofizialekoetan interesa izanez gero, Etxebiden eman behar da izena, eta Altzibarreko tasatuetarako urriko plenoan irekiko da izena emateko epea.</p> <p>Udal etxebizitza bulegoaren inguruko informazioa eskaini da.</p> <p>Herritarrek Ormazabal inguruko eraikuntza proiektua zertan den galdetu dute</p> <p>UDAL ORDENANTZEN IGOERA: %1,5 igoko dira tasak. Udalak sekulako ahalegina egin du azken urteetan ez igotzeko. Hala eta guztiz ere, KPIa baino gutxiago igo dugu gure herrian, azken batean, oreka bilatu behar dugu kalitatezko zerbitzuak izateko.</p>
<p>2024ko aurrekontu aurreikuspena</p>	<p>AURREKONTUA</p> <p>Lan ildo eta erronka hauentzat 20.200.000 euro ditugu. Arloz arlo ondorengoa izango da banaketa: Herritarren arloak %49, lurraldeak %36 eta antolaketak %15.</p> <p>Honakoak izango dira inbertsio nagusiak: mugikortasuna (bidegorri sarea, aparkaleku seguruak), energia (efizientzia energetikoan pausuak eman, energia berriztagarrien instalazioak), liburutegia birdiseinatu, herritarrentzako arreta gune bakarra jarri udalean, futbol zelai artifizial berria, udal eraikinen mantenua, hirigintza (Urkabe baitako etxeak eta Altzibarko promozioa),</p>



OIARTZUNGO
UDALA

	<p>kulturgintza (kultura plana landu eta Landetxe erreferente bihurtu), ongizatea (bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroa).</p>
Auzoa	<p>-Udalak zein aurrekontu duen galdetu du auzotar batek. Aurkezpenean adierazitako zifra hori aldakorra izan litekeela azaldu da, izan ere, dirulaguntzak jasoz gero, aurrekontua ere handitu egiten da.</p> <p>-Diputazioak urtero diru gehiago ematen duen galdetu du auzotar batek. Diru bilketaren araberako diru laguntzak ematen direla erantzun da.</p> <p>-Jarraian, aurrekontuan zehaztutako diru guztia gastatu behar den galdetu duenean, ez dela zertan dena gastatu beharrik erantzun zaio, baina udalaren helburua ez dela dirua aurrezte baizik eta proiektuak gauzatzea dela.</p> <p>-Aduriz-Peñene promozioaren inguruan auzotarrek adierazitakoak:</p> <p>-Parkearen zentzua arriskutsua izan liteke; pribatizatu, baztertu daitekeelako.</p> <p>-Bi rotondak elkar lotuko diren galdetu da.</p> <p>-Etxebizitza hauek teilatua izango dute? Ez bakarrik teilatua, estetika, inklinazioa. Udaletxetik zer egin daiteke? Aterpeak, estalkiak... Agian, nolako herria nahi dugun pentsatu behar dugu, nola diseinatu behar ditugu etxeak, parkeak... Bai estetika, bai kultura, bai hizkuntza. Ez eraikina bakarrik, baizik eta eraikinaren bueltan sortzen den guztia.</p> <p>-VPO etxeak salmentakoak edo alokairukoak izango diren galdetu da. Udalak erantzun du babes ofizialekoak salmentarako izango direla, lurra pribatua delako. Etxe tasatuekin zer gertatzen da? Etxe tasatuak diru beltzarekin saltzen ari da jendea. Hori udalak bideratu dezake? Agian udalak hartu beharko luke eta berak bideratu salmenta? Salmenta bideratzea legez ezin dela egin erantzun du udalak, lur horren jabetza pribatua dela eta udalak ezin duela bere egin lur horretan eraikitzen dena.</p> <p>-VPO etxe horiek beste eraikin batean egotea beharko luke? Komeni da? Hori ezin da plan horretan jarri. Tartekatua jartzea ez da hain sinplea. Jarraipena zehatzagoa egin beharko luke udalak.</p>



OIARTZUNGO
UDALA

-Etxebizitzen promotoreari jarraipena egin behar zaiola aipatzen da, izan ere, Olaldeko etxebizitzak izugarrizko arazoak dituzte eta badirudi araudia ez betetzeagatik. Udalak zerbait egin dezake? Udalaren aldetik saiakera eta jarraipen handiagoa izan behar duela diote. Olaldeko bizilagunak oso kezkatuak daude hezetasun arazoengatik eta udalak kezka horrekin bat egin behar duela aipatzen dute.

- **Olaldeko bizilagun batek dio Udalak Balkoien ordenantza aldatzearen prozesua azkartu beharko lukeela, balkoiak atera ahal izateko.** Udalak gaia aztertzen ari dela erantzun du.

- Olaldeko etxebizitzak egin ondoren, Uharte etxe (Errotako) terrenoa beherago geratu da eta ondorioz uholde gehiago jasaten dituzte. Baita Zokolo bideko etxeak ere.

AUZOKO ATALA

- **Frontoiaren kokapena aldatu ote daitekeen galdetu dute. Cadarso ingurura joateko aukera badago?** Udalak ezezkoa adierazi du lur hori kutsatuta dagoelako.
- Frontoiari dagokionez, auzotarrek zerbait erabakitzeko aukera izango duen galdetzen dute.
- Frontoiaren ondoan bizikletak garbitzeko une bat eskatu du auzotar batek.
- Klareneko parkinean erre kara joaten direnentzat zabor ontzi handiago batzuk eskatu dituzte. Era berean, parkeetako ontziak lepo daudela adierazten dute. Eroskiko eta errotako zubiko ontzi handiagoak ezartzea eskatzen dute.
- Eroski aurreko zelaian zakurrak ezin direla sartu esaten duen kartela jartzeko eskaera egin du bizilagun batek.
- Pitusaren etorkizuna zein den galdetzen du bizilagun batek. Uralita daukala eta ea udalak zerbait egin dezaken galdetzen dute. "zerri toki bat" dela diote.



OIARTZUNGO
UDALA

	<ul style="list-style-type: none">- Karrikako errekan arratoi asko omen daude. Olalde parkean ere arratoi asko ikusten dira.- Proposamena herri mailan: parke estali bat beharko litzatekela eguraldi txarra egiten duenean... Oreretan, Matxainen dagoen parke antzeko bat Ibergainen edo...- Agerrealdeko errotonda egiteko garaian, zuhaitzik ez jartzeko eskaera egiten dute. Lore edo seto batzuk hobeto geratuko liratekela esaten dute.- Kultura auzoetara jaitea komeniko litzateke, euskaraz bizitzeko beharra ikusten dute. Haurrak ostiral gauetan zinema euskaraz (lokalean) antolatzeke beharra... Udalak lokala ezarri du eta pixka bat gurasoen sustapena izan behar duela esan dugu. Lokala soilik merendoletako bakarra erabiltzen dela esaten dute.- Herri mailan haurrentzako mahai jokotan jolasteko lokal bat edo jartzeko eskaera egin dute.

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,5
bilera ongi gidatu da	8,4
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,5
Auzotar kopurua	6
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,6
Saioa probetxugarria izan al da?	8,4
Egunaren egokitasuna	8,6
Orduaren egokitasuna	8,3
Lekuaren egokitasuna	8,8